AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2852

674/2014 EBAZPENA, ekainaren 13koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Maria Aranzazu Echeverria Muguruza andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatzen duena, eta zerbitzu berezietan deklaratzen duena.

Aztertu dugu Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen maiatzaren 15eko 581/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko maiatzaren 26ko EHAAn.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Maria Aranzazu Echeverria Muguruza andrea deialdiko lanpostu-rako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Maria Aranzazu Echeverria Muguruza andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaina lanpostu funtzionalaren 5636 plazaren jabea dena, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Maria Aranzazu Echeverria Muguruza andrea izendatzea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2014ko ekainaren 13tik aurrera emango ditu ekonomia eta administrazio ondorioak.

Hirugarrena.– Maria Aranzazu Echeverria Muguruza andrea zerbitzu berezietan deklaratzea, bere izendapena indarrean sartzen denetik hara.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 13a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.